

humor eibarriés

EZ-EZAUNA

— Mezedezez, bost duro prestauko detsazuz?
— Nik ez zaitut ezautzen. Zergaitik ez detsazu eskatzen ezaunen bat.
— Dakidalako arek eztestela emongo.

TXARRAK POZTU

— Zer berbatzuk dira orrek, ume? Ez dago zeure aita entzuten. Entzunero balezkizun, nai neuke jakin zer eiñgo leskizun.
— Ezebez.
— Ezezt?
— Poztuko litzake.
— Poztu...? Semian berba txarrak entzun da poztu.
— Bai. Nere aita gorra da ta.

BARREGARRIA

Eskolatik barrez juan zan etxera mutikua.
— Zer pasatzen jatsu gaur, ume? esan zetsas aitak.
— Zuk lenguau kontautakuak gogoratzentzat naiz ta barreguria etortzen jata.
— Zer da baña kontautakua?
— Eztakizu zelan kontau zenduan mutikutan eskolatik aurrian atara ziñuezeia. Ba, arretzekin gogoratzentzat nentorren.
— Benetan gertaera polita izan zan, ezta?
— Bai orixe; ta oin zuk pe naikua barre eiñ biar dozu, gaur ni eskolatik zelan bota nabien berealaxe kontauko detsut...

DUAKUA

— Ez detsuk ezer billatzan. Nun sentitzen dozu ba miñ?
— Iñun be ez; gaur duan dala-ta bada ez-pada etorri naiz.

EZKON-BARRIAN AMA

— Zer moduz zare alabatxo?
— Ondo be ondo, ama.
— Zoriontsu zaraz?
— Bai, ni bai; oso zoriontsu. Nere gizona maitasun utsa da; nai doten guztia emotesta.
— Ai; nere alaba kotxaua! Guztia emoten ba-detsu, ez al dozu ikusten, biar dan beste ez detsazula eskatzen?

MIXPILLAO»

1920 garren urtia eta Habana'ko frontoian Nikaxio Nabarrete, Zezilio Unzueta Ramón Gómez (Petit) velotari eibartarrak. Anakabe ondarruatarra ondoezik xamar ebillelako jokua gitxitxuta eukan eta ipintzen zetsezen partiduak galdu baño ezitzuan eitzetan. Orraitxiok eldu izan jakon bere txandia ta Petit lagun ebala, zorionian irabasi be eiñ eban partidua. Intendentiak esan etsan:

— Muy bien, Anakabe, hoy has jugado como quien eres, te felicito. Has estado inspirado.

Dutxia artzen zeozela, ixillian, Anakabe k Petit'i:

— Aitxik, Erramon..., ze dok «mixpillao»?

Petit okertxua izan da garbi ikusi eban Anakabe gizauak baekarrela aldrebeskeren bat. Ta gaiztuak alakuak:

— «Mixpillao» esan dok? Batedon-hatek bota deuk ala?

— Bota desten edo eztesten, iri ezeuk ardura. Esaidak zer dan «mixpillao»!

— Ba, benetan, Anakabe... Neri «mixpillao» esango balestakiek, ara... danba!, nik, betondokua.

— Ondo dagok, Petit. Esan duana juat naikua.

Bixaramonian, goizeko amaiakak aldiun zurixa edatera juateko usarixua eukin tokixan, an ziran pelotari, korredore eta abar, mordo bat. Euren artian Anakabe, arpegixa kolore barik eta amorruak dardaraka. Petit bere aldamenian, ezer esan barrik baña bai Anakabe zaintzen, astikeriaren bat eiñ ezeixan. Andik pixkatera or sartzen da intendentia, ta juan zan beragana Anakabe, eldu paparretik eta beixe-tatik sua zerixola, esaetan:

— Aitzizu ia..., «Mixpillao» será usté... Kakatsu j... Kakatsu! Petit albuian izan ez-pazan, danba! be, or orrenbaten.

A. Iturroz

ONDASUNAK

— Tabakua da zure ondasundi guztia. Erreko ez ba-zendu, oin ezkerro erosia zeikian palasioren bat, orren diruakina.

— Zuk ez al dozu erretzen?

— Tautik pe ez.

— Guazen, orduan, zure palaziua ikustera.

GALTZEN JAKITZIA

Pelotaleku zarrian, joko, droga ta posturan Maskue'o lelen zanian; ogerlekua bi eiñ guran, iru edo lau partidu berbatutzen zituan aurrez, zetsela ta, nai beste diru irabasiko oso errezz. Lelengo bixak, postura eta trabes gitxikuak; beste bixak, bai ardura eta gora-bera aundikuak.

Atara pelotia eta lelena ta bigarrena, arnasa estuz beteta uste an zala bere azkena, Maskue'ok itxo biarrian, galtzen zituan bertan bera. Baña iru ta laugarrenian, arin eta barri ostera, bendetik kontrarixua asieratik azkeneraño, joko postura aun likua ari iñioiz, irabasi iñok.

—

Kontu onen filosofia da, bat: munduan irabasteko, galtzen jakin biar dala; ta bi: aurrera juateko biar dogula ondo ikasi, astun gitxiko gauzetan emon kontrarixuari; baña ardura aundikuetan, eutsi!, ta zaildu biar bada, ta irabasi gabe ez laga!

T. ETXEBARRIA.

Caracas'dik.



Orrek Kongo aldeko ba'litzok penstazten juck zibilizauta darela; bafia, Real Madrixa juango balitzakek, ordu erdixan amaren bat gol sartuko laitzukiekk.



Esaixok ia nun dan berakin ekarren independenzia. Olan bixak batera jango jitxuagu.